

LOMCE/ HEZIBERRI EZ

GUK
GURE

eskola

euskal
eskola
publikoa

LOMCE

2013ko abenduan LOMCE onartu zuen Espainiako Kongresuak, erkidegoek derrigorrez bete behar duten lege organikoa. 2014-2015 ikasturtean hasi eta 2017-2018an DBH eta Batxilergoko errebalidekin amaituko den egutegia ezartzen zuen. Oposizioko partiduek legea indargabetzea adostu zuten PP-k gehiengo absolutua galtzen badu.

Hezkuntza-eragile guztiak legearen kontra agertu ginen hasieratik ekimen desberdinen bitartez, atzerakoia, bidegabekia eta zentralizatzailea delako, eta ez delako erantzuten gure hezkuntza-sistemaren beharrei.

HEZIBERRI 2020

LOMCE onartzearekin batera Heziberri 2020 hezkuntza-plana aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak. Hiru fase ditu egitasmo honek.

1. Fasea: Hezkuntza eredu pedagogikoaren markoa.

Eduki, metodologia eta ebaluazioaren lerro orokorrak ezartzen ditu, besteak beste. Hauek dekretuetan (2. fasea) zehaztuko dira gero.

*Gure balorazio kritikoa:

1. Hezkuntza-sistemaren diagnostikorik ez du egiten (ezinbestekoa eredu aldatzeko).
2. LOMCEren eraginaren analisirik ez du egiten (beharrezkoa derrigorrez aplikatu behar den lege bat dagoenean mahai gainean).
3. Ez du aitortzen eskola publikoa izan behar denik hezkuntza-sistemaren ardatza.

2. Fasea: Dekretu kurrikularrak. 2007tik indarrean zeuden dekretuak aldatu dira LOMCE aplikatzeko.

Aldaketa hauek egin dira gure araudian, beste batzuen artean:

- Bi froga diagnostiko ezartzen dira lehen hezkuntzako 3. eta 6. mailak amaitzean (orain arte lehen hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan egin dira).
- **Errebalidak** ezartzen dira DBH eta batxilergoko tituluak lortzeko (orain arte ikastetxeak ematen zituen titulu hauek).
- Bi ziklotan banatzen da lehen hezkuntza, hiru zikloak mantentzeko aukera ere ematen duen arren (orain arte hiru ziklotan banatu da).
- “Balore etiko eta sozialak” izeneko irakasgai berria sortzen da Erljioa aukeratzeko ez duten ikasleentzat (biak ebaluatuko dira eta **kontuan hartuko dira nota eta beketarako**). Gainera, Batxilergoko 2. mailaraino zabaltzen da Erljioa (lehen 1. mailan ematen zen soilik).
- Etapa guztietako irakasgaiak LOMCEra egokitzen dira, aldaketa justifikatu gabe.

Oraindik ez diren arren ofizialak (Eusko Jaurlaritzak ez ditu onartu), **dekretu hauek indarrean segituko dute LOMCEekin gertatzen dena kontuan izan gabe**. Hau da, gertatu litekeena da LOMCE indargabetzea Madrilera eta beronen hainbat eragin negatibo EAE-n aplikatzen jarraitzea.

*Gure balorazio kritikoa:

1. LOMCE aplikatzen dute.
2. Ez dituzte barne hartzen Euskal Eskola Publikoarentzat oinarritutako diren printzipioak (hezkuntza-sareen ardura partekatua ikasle guztiak eskolaratzeko, ekitatean oinarritutako bikaintasuna).
3. Ez ditu barne hartzen Euskal Eskola Publikoaren etorkizunerako beharrezkoak diren proposamenak: hizkuntza-ereduen sistema gainditzea eta autonomia erabiltzeko markoa.

3. Fasea: Euskal Hezkuntza Legea: legegintzaldiaren azken ikasturte honetan (2015-2016), Euskal Hezkuntza Legea egiteari ekin dio Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak eta bilerak egiten hasi da hezkuntza-eragile eta partidu politikoekin.

EUSKAL HEZKUNTZA LEGEA

1993an onartu zen Euskal Eskola Publikoaren Legea. Orain, hezkuntza sistema osoa arautuko duen legea egiteko asmoa du Eusko Jaurlaritzak.

Gure ustetan:

- Lege honek jaso behar du behingoz **eskola publikoa dela euskal hezkuntza sistemaren oinarritzko ardatz egituratzailea** eta modu zehatz eta bakar batean zehaztu zer den ikastetxe publiko bat, betirako itxiz eztabaida hau ("Euskal Herrirako Curriculum" dokumentuaren 25. orrian aurkituko duzue gure definizioa). Lehentasun hau kontuan izan behar da beste hezkuntza-sareen gainetik aurrekontu eta araudiaren ikuspuntutik.

- Prozesuak **parte-hartzailea eta gardena** izan behar du, hezkuntza komunitateak baita gizarte osoak ere parte hartzeko bideak ipiniz.

- Euskal Eskola Publikoaren aldeko politikak indartu** behar ditu gai hauek jasoaz, beste batzuen artean:

- Eskaera errealei erantzungo dieten plaza publikoak bermatu leku eta maila guztietan, **itunak ekidinez eskaintza publiko nahiko dagoen maila eta lekuetan.**

- Eskaeraren igoerari erantzungo dion ikastetxe publiko berriak eraikitzeke plana, **baita egungo eraikinak berritzeko premiazko obren plana.**

- Hezkuntza eta gizartearen **erronka eta eskaera errealei erantzungo dien finantzaketa plan espezifiko eskola publikoarentzat.**

- Behar gehien duen **ikaslegoa ikastetxe gutxi batzuetan kontzentratzea ekidinduz duen planifikazioa**, hala nola itunpeko ikastetxe batzuek ikaslegoa aukeratzea.

- Egungo hizkuntza-ereduen sistema gainditzea** euskara ardatz izango duen eredu bakarra ezarritz.

- Ikasle eta ikastetxe bakoitzaren beharretara egokituko den **autonomia erreala arlo guztietan.**

- OOG-ak arautu eta argi eta garbi zehaztu zein izango den euren erabaki ahalmena eta jarduera-eremua, **familiak hezkuntza-eragile izango direla bermatuz ardura eta erabaki ahalmenarekin**

- IGE eta federazioak hezkuntza-eragile direla aitortu behar da eta ondorioz, instituzioen ardura da euren izatea eta mantenua bermatzea, **hezkuntza-sistemak jasotzen duen finantzazioaren araberako finantzazio publikoa bermatuz.**



"Hauxe datorkigu LOMCerekin" eta "LOMCErik ez Euskal Eskola Publikoan" dokumentuetan irakurri dezakezu zer esan dugun LOMCeri buruz.

lomce.ehige.eus

Gure proposamenei buruzko informazio gehiago "Euskal Herrirako Curriculum" eta "Euskal Eskola Publikoa haratago" dokumentuetan

ehige.eus

LOMCE/ HEZIBERRI EZ

GUK
GURE

eskola

euskal
eskola
publikoa

LOMCE

En diciembre de 2013 el Congreso de los diputados aprobó la LOMCE, una ley orgánica de obligado cumplimiento para todas las comunidades autónomas del Estado español. Establecía un calendario de cumplimiento que empezaba en el curso 2014-2015 y acaba en el 2017-2018 con la implantación de las reválidas en ESO y Bachillerato. Los partidos de la oposición acordaron derogarla si el PP pierde la mayoría absoluta.

Todos los agentes educativos mostramos nuestro rechazo a través de diferentes iniciativas, por tratarse de una ley retrógrada, injusta y centralizadora que no responde a las necesidades de nuestro sistema educativo.

HEZIBERRI 2020

Coincidiendo con la aprobación de la LOMCE el Gobierno vasco presentó el Plan educativo Heziberrri 2020, que consta de tres fases.

1ª Fase: Marco del modelo educativo pedagógico.

Establece las líneas generales de los contenidos, la metodología y la evaluación, entre otros, que luego se desarrollan en los decretos curriculares.

*Nuestra valoración crítica:

1. Carece de un diagnóstico del sistema educativo (imprescindible para realizar cualquier modificación del modelo vigente).
2. Carece de un estudio de impacto de la LOMCE (necesario cuando hay una nueva ley que es de obligado cumplimiento).
3. No reconoce a la escuela pública como eje del sistema.

2ª Fase: Decretos curriculares. Se trata en realidad de la modificación de los decretos anteriormente en vigor (de 2007) para adecuarse a la LOMCE realizando, entre otros, las siguientes modificaciones sobre la anterior normativa:

- Establece dos evaluaciones de diagnóstico al finalizar el 3er y 6º curso de primaria (hasta ahora esta evaluación se ha realizado en 4º de primaria y 2º de la ESO).
- Establece **reválidas** para lograr los títulos de la ESO y de Bachillerato (con la normativa anterior estos títulos los emitía el mismo centro).
- Establece dos ciclos en primaria, aunque permite mantener tres (el anterior establecía tres).
- Crea una nueva asignatura denominada “Valores éticos y sociales” para todo el alumnado que no elija Religión. Ambas asignaturas son evaluables y **cuentan para nota y para becas**. Además, la religión se amplía hasta 2º de bachillerato (hasta ahora sólo se daba en 1º).
- Modifica las asignaturas de todas las etapas para adecuarlas a la LOMCE, sin justificar el cambio.

Aunque todavía no son oficiales (no han sido aprobados por el Gobierno vasco), **estos decretos seguirán en vigor independientemente de lo que ocurra con la LOMCE**. Es decir, se puede dar el caso de que se derogue la LOMCE en Madrid y muchos de sus efectos negativos se sigan aplicando en la CAV.

*Nuestra valoración crítica:

1. Aplican la LOMCE.
2. No incluyen principios prioritarios para la Escuela Pública Vasca, como la corresponsabilidad entre redes para escolarizar a todo el alumnado y el principio básico de excelencia desde la equidad.
3. No recoge propuestas de avance e innovadoras para la Escuela Pública Vasca, como superar el actual sistema de modelos lingüísticos y establecer un marco efectivo de ejercicio de la autonomía.

3ª Fase: Ley Vasca de Educación. En el actual curso 2015-2016 que coincide con el último de legislatura, el Departamento de Educación del Gobierno vasco ha empezado a elaborar una Ley Vasca de Educación, estableciendo una ronda de reuniones bilaterales con agentes educativos y partidos políticos.

LEY VASCA DE EDUCACIÓN

En la actualidad la CAV cuenta con una Ley de la Escuela Pública Vasca que data de 1993. El Gobierno vasco ha planteado hacer una ley que regule todo el sistema educativo vasco.

En nuestra opinión:

•La Ley debe recoger **que la escuela pública es el eje vertebrador y prioritario del sistema educativo vasco** y establecer una definición clara y única de lo que es un centro público, zanjando de una vez por todas este debate (nuestra definición de escuela pública está recogida en la página 25 de "Euskal Herrirako Curriculumuma"). Desde la perspectiva presupuestaria y normativa se debe contemplar esta prioridad sobre cualquier otro tipo de red.

•El proceso debe ser **participativo y transparente**, estableciendo los cauces para que la comunidad educativa así como la sociedad en su conjunto puedan participar de forma efectiva.

•Debe **reforzar políticas a favor de la Escuela Pública Vasca** recogiendo temas como:

-Garantizar plazas públicas en toda la enseñanza y su presencia en todas las zonas y niveles, **impidiendo la**

concertación en tramos y lugares donde exista suficiente oferta pública.

-Un plan de construcción de nuevos centros públicos que responda al crecimiento de la demanda así como un **plan específico de obras que aborde con urgencia las necesidades de reformas y modernización del parque escolar público actual.**

-Un **modelo específico de financiación suficiente para la escuela pública que responda a los retos y demandas reales** de la educación y de la sociedad.

-Una **planificación educativa que combata la concentración de alumnado más desfavorecido** en unos pocos centros así como que algunos centros concertados favorezcan la selección social de alumnado.

-**Superar el actual sistema de modelos lingüísticos** y establecer un único modelo con el euskera como lengua vehicular.

-Un proceso de **autonomía real** a todos los niveles que responda a las necesidades del alumnado y de cada centro público.

-Regular los OMR recogiendo de forma clara su poder de decisión y ámbito de acción, facilitando que las proporciones de representatividad **hagan realidad que las familias sean agentes** con responsabilidad y poder de decisión.

-Las AMPAs y las federaciones deben ser reconocidas como agentes educativos y, por tanto, es responsabilidad de las instituciones posibilitar su existencia y mantenimiento mediante una financiación pública acorde a la **financiación que recibe el sistema educativo.**



“Puedes leer lo que hemos dicho sobre la LOMCE en los documentos “Hauxe datorkigu LOMCErekin” y “LOMCErik ez Euskal Eskola Publikoan”

lomce.ehige.eus

Más información sobre nuestras propuestas: “Euskal Herrirako Curriculumuma y “Euskal Eskola Publikoa haratago”

ehige.eus